Sestra gainerako espazio eraikiezinak egoteko lekuak, espazio libreak eta lorategiak egitera bideratuko dira batez ere. Espazio horietan baimenduta dago aparkaleku-erabilera.

Ahal dela, sartzea libre izango den espazioak izango dira, nahiz eta sarbide mugatuko esparru itxiak izan daitezkeen.

5. Aparkaleku-plazak:

Oro har, hirugarren sektoreko erabilerako 100 metro koadro(t) bakoitzeko 1,4 plazakoa izango da bete beharreko ratioa.

Lursail bakoitzaren araudi partikularrean ezartzen dena izango da gutxieneko aparkaleku kopurua. Ahal dela, sestra azpiko solairuetan egokituko dira aparkalekuak.

Oro har, garajerako sarbide bakarra egongo da lursail eta/edo eraikuntza-multzo bakoitzeko, ez bada behintzat, hainbat inguruabarren ondorioz, bideraezina edo aukera hori gomendagarria ez dela justifikatzen bada.

3. SEKZIOA. Bizigarritasun-baldintza orokorrak

29. artikulua. *Eraikuntza intentsiboko bizitegi-erabilerako zonetan (a.20.1 eta a.20.2) dauden lursailetarako bizigarritasun-baldintza orokorrak.*

Etxebizitzek Euskal Autonomia Erkidegoko gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta zuzkidura-bizitokiak diseinatzeko arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretua edo horren ordezkio araudia bete beharko dute.

1. Altuera libreak:

Amaitutako lurzorua eta sabaiaren koten artean neurtzen den distantzia bertikala da altuera libre.

Goiko solairuetako gutxieneko altuera libre 2,50 metrokoa izango da.

Sestra gaineko bigarren solairuko amaitutako lurzorua maila -hau da, goiko lehenengo solairuko lurzorua- 4,50 metroko gehieneko altuerara egongo da, urbanizatutako lursailaren sestratik neurtuta.

Erabilera osagarrietara (aparkalekuak, trastelekuak...) bideratutako sestra azpiko solairuen gutxieneko altuera libre 2,50 metrokoa izango da. Altuera hori txikiagoa izan daiteke instalazioen arteko gune zehatzetan.

2. Babes Ofizialeko Etxebizitzak:

Babes Ofizialeko Etxebizitzek era horretako etxebizitzetarako berariazko araudia beteko dute -Agindua, 2009ko otsailaren 12koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburuarena, Babes Ofizialeko Etxebizitzen Diseinuko Ordenantzak onesten dituen-, edo hori ordeztzen duen araudia.

3. Gehieneko etxebizitza kopurua eta etxebizitzen gutxieneko tamaina:

- Dagokion araudi partikularrean bizitegi-lursail bakoitzerako ezartzen dena izango da gehieneko etxebizitza kopurua.

- 40 metro koadro erabilgarrikoa izango da etxebizitzaren gutxieneko tamaina.

Tamaina horiek betetzeko ondoretarako, etxebizitzetara sartzeko espazio komunak zenbatuko dira (eskailerak, igogailua, eskailera-burua, korridoreak), baina ez erabilera osagarrietara bideratutako espazioak, hala nola garajeak, instalazio-gelak eta etxebizitzen trastelekuak.

4. Baimendutako beste erabilera batzuetara bideratutako beheko solairuko lokaletan aplikatu beharreko baldintzatzaileak:

- Gutxieneko altuera libre.

Amaitutako lokalaren gutxieneko altuera libre 2,70 metrokoa izango da erabilera publikora bideratutako lokalaren azale-

4. Uso de los espacios privados no edificables sobre rasante:

Los espacios no edificables sobre rasante se destinarán preferentemente a lugares de estancia, espacios libres y jardines. En estos espacios se permite el uso de aparcamiento.

Preferentemente serán espacios abiertos de acceso libre, aunque podrán ser recintos cerrados de acceso restringido.

5. Plazas de aparcamiento:

En general, el ratio a cumplir será de 1,4 plazas por cada 100 m²(t) de uso terciario.

El número mínimo de plazas de aparcamiento será el que se establezca en la normativa particular de cada parcela. Los aparcamientos serán habilitados preferentemente en las plantas bajo rasante.

Con carácter general, se dispondrá un único acceso a garaje por parcela y/o bloque edificatorio, salvo que pudieran darse circunstancias en las que resultara inviable o justificadamente desaconsejable.

SECCIÓN 3. Condiciones generales de habitabilidad

Artículo 29. *Condiciones generales de habitabilidad para las parcelas en zonas de uso residencial de edificación intensiva (a.20.1 y a.20.2).*

Las viviendas deberán cumplir el Decreto 80/2022, de 28 de junio, de regulación de las condiciones mínimas de habitabilidad y normas de diseño de las viviendas y alojamientos dotacionales en la CAPV, o normativa que sustituya a esta.

1. Alturas libres:

La altura libre es la distancia vertical medida entre las cotas de suelo y techo acabados.

La altura libre mínima de las plantas altas será de 2,50 m.

El nivel del suelo acabado de la segunda planta sobre rasante, primera planta alta, se situará a una altura máxima de 4,50 m medidos desde la rasante del terreno urbanizado.

La altura libre mínima de las plantas bajo rasante destinadas a usos auxiliares (aparcamiento, trasteros...) será de 2,50 metros. Esta altura podrá ser menor en zonas puntuales de paso de instalaciones.

2. Viviendas de Protección Oficial:

Las Viviendas de Protección Oficial cumplirán la normativa específica para este tipo de viviendas, Orden de 12 de febrero de 2009 del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se aprueban las Ordenanzas de Diseño de Viviendas de Protección Oficial, o normativa que sustituya a ésta.

3. Número máximo de viviendas y tamaño mínimo de vivienda:

- El número máximo de viviendas será el establecido en las normas particulares para cada parcela residencial.

- El tamaño mínimo de la vivienda será de 40 m² (útiles).

A los efectos del cumplimiento de esos tamaños serán computados los espacios comunes de acceso (escaleras, ascensor, descansillo, pasillos) a las viviendas, pero no los espacios destinados a usos auxiliares tales como garajes, cuartos de instalaciones y trasteros de las viviendas.

4. Condicionantes de aplicación en los locales de planta baja destinados a otros usos autorizados:

- Altura libre mínima.

La altura libre mínima del local acabado será de 2,70 m en no menos del 60 % de la superficie útil de local destinada a uso

ra erabilgarriaren % 60an gutxienez, eta 2,50 metrokoa pertsonak modu jarraituan egotera bideratutako erabilera publikoko gainerako azaleran. Gela osagarrietan –hala nola biltegiak, komunak edo antzerakoak– altuera libre 2,30 metrora murriztea baimentzen da; gela horiek, baina, ezingo dira erabili pertsonak modu jarraituan egotera. Zona publikoan dagoen lokalaren gaineren batean mailatutako elementurik edo elementu apaingarri bategi, 2,50 metrokoa izan beharko litzateke gune horretako gutxienezko altuera libre. Hori guztia, jarduera jakin batzuk ezartzeko dagokion araudi tekniko-sanitarioak exijitzen dituzkeen baldintzak eta Udal Ordenantzetan ezarritakoa betetzetik erator litezkeen betekizunak gorabehera.

Ostalaritzako eta Aisialdiko Jardueretako Establezimenduen Instalazioa Arautzen duen Udal Ordenantza edo hura ordeztzen duen xedapena aplikatzeko esparruan, Ordenantza horretan adierazten diren gutxienezko altuerak bete beharko dira.

– Sarbidea.

Beheko solairuko lokal guztiek, eraikinaren kanpoaldetik izan beharko dute zuzeneko sarbidea.

– Gutxienezko azalera.

Lokal horietako bakoitzak gutxienez 20 metro koadroko azalera erabilgarria izan beharko du, salbuespenezko kasuetan izan ezik, jarduera motagatik (loteria-saltokiak, prentsa-saltokiak, estankak eta antzerakoak) ez bada beharrezkoa azalera hori izatea, jarduera edo erabilera behar bezala gauzatzeko.

Ostalaritzako eta Aisialdiko Jardueretako Establezimenduen Instalazioa Arautzen duen Udal Ordenantza edo hura ordeztzen duen xedapena aplikatzeko esparruan, Ordenantza horretan adierazten diren gutxienezko azalera bete beharko dira.

– Saltokiaren gutxienezko azalera.

Lokal komertzial bakoitzean jendeari arreta ematera bideratutako zonak gutxienez 10 metro koadroko azalera izan beharko du.

30. artikulua. «c.10. Hirugarren sektoreko erabilera» eremuetan dauden lursailentzako bizigarritasun-baldintza orokorrak.

Ostalaritzako eta aisialdi-jardueretako establezimenduen instalazioa arautzen duen udal ordenantzako bizigarritasun-baldintza aplikatu beharko dira.

Gainerako erabilera onargarrietarako, dagokion legeria sektorialak ezartzen dituen betekizunak bete beharko dira.

4. SEKZIOA. Aparkalekua

31. artikulua. Baldintza orokorrak.

Sestra azpian erabilera pribatuko garajeak eraikitzea baimentzen da.

Dokumentazio grafikoan jasotzen da garajeetara sartzeko arrapalen egoera (bakarra lursail pribatu bakoitzerako), nahiz eta eraikuntza-proiektuak egoera hori aldatu ahal izango duen, beheko solairuei eragiteko aukerarekin.

32. artikulua. Ibilgailuak aparkatzeko gutxienezko zuzkidura.

Lursail pribatu bakoitzaren araudi partikularrean ezartzen da aparkaleku-plazaren gutxienezko zuzkidura.

Oro har, ondorengo ratioa ezartzen da:

Bizitegi-erabilera lursailak: bizitegi-erabilera eta hirugarren sektoreko erabilera 100 m²(t) bakoitzeko 1,5 aparkaleku-plaza.

Hirugarren sektoreko erabilera lursailak: hirugarren sektoreko erabilera 100 m²(t) bakoitzeko 1,4 aparkaleku-plaza.

público y una altura libre mínima de 2,50 m en el resto de la zona de uso público destinada a la estancia continuada de personas. En las dependencias auxiliares tales como almacén, aseos o similares, se autoriza que la altura libre sea reducida a 2,30 m, si bien estas dependencias no podrán destinarse a la estancia prolongada de personas. Si existieran elementos escalonados o decorativos en algún punto del local comprendido en la zona pública, la altura libre mínima en este punto no será inferior a 2,50 m. Todo ello sin perjuicio de los requisitos que pudieran derivarse del cumplimiento de las condiciones exigibles por la normativa técnico-sanitaria correspondiente para el emplazamiento de determinadas actividades, y de lo establecido en las Ordenanzas Municipales.

En el ámbito de aplicación de la Ordenanza Municipal Reguladora de la Instalación de Establecimientos destinados a Hostelería y Actividades Recreativas o disposición que la sustituya, se deberá cumplir con las alturas mínimas indicadas en dicha Ordenanza.

– Acceso.

Todos los locales de planta baja tendrán acceso directo desde el exterior del edificio.

– Superficie mínima.

La superficie útil de cada uno de esos locales no será inferior a 20 m², salvo en los supuestos excepcionales en los que, por el tipo de actividad (expendedurías de lotería, prensa, estancos y otros similares) no se precise dicha superficie para el correcto ejercicio de la actividad o uso.

En el ámbito de aplicación de la Ordenanza Municipal Reguladora de la Instalación de Establecimientos destinados a Hostelería y Actividades Recreativas o disposición que la sustituya, se deberá cumplir con las superficies mínimas indicadas en dicha Ordenanza.

– Superficie mínima de venta al público.

La zona destinada a venta al público en cada local comercial tendrá una superficie no inferior a 10 m².

Artículo 30. Condiciones generales de habitabilidad para las parcelas en zonas «c.10. Usos Terciarios».

Serán de aplicación las condiciones de habitabilidad ordenanza municipal reguladora de la instalación de establecimientos destinados a hostelería y actividades recreativas.

Para el resto de usos admisibles se deberán cumplir los requisitos establecidos por la legislación sectorial correspondiente.

SECCIÓN 4. Aparcamiento

Artículo 31. Condiciones generales.

Se autoriza la implantación bajo rasante de garajes de uso privado.

Se recogen en la documentación gráfica la situación de las rampas de acceso (una única para cada parcela privada, si bien el proyecto edificatorio podrá modificar esta situación, con la posibilidad de afectar a las plantas bajas).

Artículo 32. Dotación mínima de aparcamiento de vehículos.

La dotación mínima de plazas de aparcamiento se establece en la normativa particular de cada una de las parcelas privadas.

Con carácter general, se establece el siguiente ratio:

Parcelas de uso residencial: 1,5 plazas de aparcamiento por cada 100 m²(t) de uso residencial y terciario.

Parcelas de uso terciario: 1,4 plazas de aparcamiento cada 100 m²(t) de uso terciario.

Bizitegi-erabilerako lursailetan, aparkaleku-plazen zuzkidura murriztu ahal izango da behar bezala justifikatzen bada, baina 100 m²(t) bakoitzeko 1,4 aparkaleku-plazako gutxieneko ratioa bermatu beharko da.

33. artikulua. *Ibilgailuentzako aparkalekuen ezaugarri teknikoak.*

Espazio publikoan zein lursail pribatuetan jartzen diren aparkaleku-plazek 2,5 x 5 metroko gutxieneko tamaina izan beharko dute.

Bideetan edo eraikuntzarik gabeko espazio libreetan ibilgailu arinak aparkatzeko zona guztietarako irisgarritasuneko arau teknikoak onesten dituen 68/2000 Dekretuaren 3.11 artikulua betetzeko, modu iraunkorrean gordeko da gutxienez 40 aparkaleku bakoitzeko edo zatikiko bat, mugikortasun urriko pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuentzako, eta oinezkoentzako ibilbideetatik eta eraikinetarako sarreretatik hurbil jarriko dira, ezarritako gutxieneko dimentsioak errespetatuz.

5. SEKZIOA. Baldintza estetikoak eta apaintasuneak

34. artikulua. *Eraikuntzaren konposizio-baldintzak.*

1. Eraikuntzek fatxadak izan beharko dituzte buelta guztiak, tratatu gabeko paramentuak saihestuz. Antzerako tratamendua exijituko da estalkietarako ere. Berezikiz zaindu beharko dira eraikinen konposizio arkitektonikoa eta materialak.

2. HAPB honetan antolatzen diren lursailetak bakoitzarako hainbat eraikuntza-proiektu idatzi ahal izango da, birpartzelazio-prozesuaren ondoriozko azpi-lursailen edo erregistro-finen arabera; baliteke, gainera, aurreikusitako eraikuntza-lanak faseka egitea ere. Dagozkion proiektuetan, eraikinaren konposizio arkitektonikoa definituko da, unitate horietako bakoitzerako irudi bateratu bat bermatzeko helburuz.

35. artikulua. *Errotuluak eta beste elementu batzuk.*

Errotuluak onartzen dira bide publikoaren gainetik dauden fatxadetan hutsunetan sartuta, edo bestela, margotuta edo gainjarrita, hizkiz hizki, fatxadaren gainean, hutsuneen goialdetik dagoen espazioan, hutsuneen zabaleraren barruan. Gehienez ere 40 cm-ko altuera izango dute.

Errotulua hutsunean sartzen bada, fatxadaren lerrotik irten gabe egin beharko da, ez dezan murriztu aireztapen- eta argiztapen-azalera baimendutako gutxienezkoak behera.

Beheko solairuan eta lehenengoan bakarrik onartzen dira, azken horren kasuan, etxebizitza-erabilerarik ez badu bakarrik. Lehenengo solairuko errotuluak fatxadaren hutsunearen barruan sartuta bakarrik jarri ahal izango dira.

Eraikuntza berean, eta errotuluak jartzea baimenduta dagoen solairuetan, altuera berean jarri beharko dira. Horregatik, alderdi hori jaso egin beharko da lizentzia eskatzeko aurkezten den proiektuan.

Ez da onartzen fatxadaren kanpoko aldean markesinarik, beira-arasarik, salmenta-makinarik, airea girotzeko makinarik edo antzerakorik jartzea. Debeakututa dago fatxadarekiko perpendikularrak diren errotulu-banderak jartzea, baita baimendutako solairuetan jartzen ez den errotulu oro ere.

36. artikulua. *Eraikinik gabeko espazio pribatuen tratamendua.*

1. Jabetza partikularreko espazio libreak nahitaez mantendu beharko dira apaintasun- eta osasungarritasun-baldintza onetan, eta baldintza horietarako beharrezko urbanizazioa izango dute (zoladura, lorezaintza, euri-urak biltzeko sistema, argiteria eta gainerako zerbitzuak).

2. Eraikuntzarik gabeko espazio horietan erabilera osagarriak funtzionalak izan eta gara daitezen beharrezkoak diren eraikuntza-elementuak ezartzea baimentzen da, hala nola soto-erakuntza elementuak eskailera-elementuak, sotoak aireztatze elementuak, etab.

En las parcelas de uso residencial podrá reducirse la dotación de plazas de aparcamiento justificadamente, pero se deberá garantizar el ratio mínimo de 1,4 plazas de aparcamiento por cada 100 m²(t).

Artículo 33. *Características técnicas de los aparcamientos de vehículos.*

Las plazas de aparcamiento que se dispongan tanto en el espacio público como en las parcelas privadas tendrán una dimensión mínima de 2,5 x 5 m.

En cumplimiento del artículo 3.11 del Decreto 68/2000, por el que se aprueban las normas técnicas de accesibilidad en todas las zonas de estacionamiento de vehículos ligeros situadas en vías o espacios libres de edificación, se reservarán permanentemente como mínimo una plaza por cada 40 o fracción para vehículos que transporten personas con movilidad reducida, disponiéndose cerca de los itinerarios peatonales y los accesos a los edificios y respetando las dimensiones mínimas establecidas.

SECCIÓN 5. Condiciones estéticas y de ornato

Artículo 34. *Condiciones de composición de la edificación.*

1. Las edificaciones presentarán fachadas en todo su contorno, evitándose los paramentos no tratados. Similar tratamiento se exigirá para las cubiertas. Deberá cuidarse especialmente la composición arquitectónica de los edificios y sus materiales.

2. Podrán redactarse varios proyectos de edificación para cada una de las parcelas ordenadas en este PEOU, en función de las sub-parcelas o fincas registrales resultantes en el proceso reparcelatorio, o de la posible ejecución por fases de la edificación prevista. En los respectivos proyectos se definirá la composición arquitectónica del edificio, a fin de garantizar una imagen unitaria para cada una de dichas unidades.

Artículo 35. *Rótulos y otros elementos.*

Se admiten rótulos en las fachadas sobre la vía pública integrados en los huecos, o bien, pintados o incorporados, letra a letra, sobre la fachada en el espacio situado inmediatamente por encima de los huecos, dentro de la anchura de éstos. Su dimensión en altura no superará los 40 cm.

Si el rótulo se incorpora en el hueco, se hará sin sobresalir de la línea de fachada y de forma que no reduzca la superficie de ventilación e iluminación por debajo del mínimo permisible.

Se admiten solamente en planta baja y en planta primera cuando ésta no se dedica a vivienda. Los rótulos de planta primera sólo podrán ser incorporados dentro de los huecos de fachada.

En una misma edificación los rótulos irán colocados a la misma altura en las plantas en que se permitan. Por ello, este extremo deberá hacerse constar en el proyecto que se presente en solicitud de licencia.

No se admiten marquesinas, vitrinas, máquinas expendedoras ni máquinas de aire acondicionado o similares por el exterior de la fachada. Quedan prohibidos los rótulos-bandera perpendiculares a fachada, así como todo rótulo que no se sitúe en las plantas permitidas.

Artículo 36. *Tratamiento de los espacios privados libres de edificación.*

1. Los espacios libres de propiedad particular se mantendrán obligatoriamente en adecuadas condiciones de ornato y salubridad y estarán dotados de la urbanización que tales condiciones requieran (pavimentación, jardinería, recogida de aguas pluviales, alumbrado y demás servicios).

2. Se admite en estos espacios privados libres de edificación la implantación de elementos constructivos necesarios para la funcionalidad y desarrollo de los usos auxiliares, como por ejemplo elementos contruidos de escaleras de acceso a sótano, elementos de ventilación de sótanos, etc.

37. artikulua. Jasangarritasuneko irizpide orokorrak.

A.U. «11.Amue eremuko eraikinek justifikatu beharko dute jasangarritasunari dagokionez ondorengo alderdi edo irizpide orokorrak betetzen dituztela:

- Orientazio egokia.
- Energia aurrezteko eraikuntza-elementuak dituela.
- Aireztapen egokia.
- Hondakinak bereizita gordetzera bideratutako espazioak dituela, gero hondakinok birzikla daitezzen.
- Bizikletak aparkatzera bideratutako espazioak antolatzen direla.
- Argiztapen- eta berogailu-instalazioetan eta ur-kontsumo-koetan energia aurrezteko soluzio teknikoak dituela.
- Energia berriztagarriak erabiltzen dituela.
- Ur-hargunea eta ur beltzen saneamendu-sarea dituela, komunikazio bertikaleko nukleoa behar bezala garbitzeko.

2. KAPITULUA. EKIPAMENDU KOMUNITARIOKO
LURSAILEI APLIKATU BEHARREKO
BALDINTZA OROKORRAK

1. SEKZIOA. EC1 eta EC2 ekipamendu komunitarioko
lursailen erabilera- eta eraikuntza-baldintzak

38. artikulua. Eraikuntza-araubidea.

Ekipamenduko lursailetan garatzen diren eraikuntzek HAPB honen Antolamenduko Planoetan eraikuntzari eta bolumenari dagokionez ezartzen diren baldintza orokorrak bete beharko dituzte, bai eta ekipamendu komunitarioko lursailetakako bakoitzeko dagokion araudi partikularrean ezartzen dena ere.

Lursail horiei esleitu zaien eraikigarritasuna inola ere ez da zenbatuko aprobetxamenduzko eraikigarritasunaren ondoretarako, jabari publikoko ekipamenduak baitira.

39. artikulua. Erabilera-araubidea.

1. Berezko erabilerak: ekipamendu komunitarioko erabilerak, lursail bakoitzaren araudi partikularrean ezartzen diren modalitateetan.

2. Erabilera onargarriak:

— Etxebizitza-erabilera, ekipamendu-erabileren erabilera osagarri modura bakarrik (gehienez ere, ekipamendu bakoitzeko etxebizitza bat).

— Egoitza komunitarioko erabilera, ekipamenduko lursailaren dagokion araudi partikularrean berariaz aurreikusten diren kasuetan.

— Hirugarren sektoreko erabilerak, berezko erabilerekin bateragarriak eta haien osagarri diren modalitateetan.

— Aparkalekuak.

— Hiri-zerbitzuen azpiegiturak. Hiri-zerbitzuen azpiegiturako erabilerak (telekomunikazioak...) jotzen dira propio halakotzat.

— Ekipamenduaren osagarri diren edo hari atxiki dakizkiokeen beste erabilera batzuk. Hiri-zerbitzuen azpiegituren erabilerak jotzen dira propio halakotzat, sestra gaineakoak zein sestra azpi-koak, baldin eta eremuaren erabilera nagusiarekin (ekipamendu komunitarioa) bateragarriak badira.

3. Debekatutako erabilerak: aurreko modalitateetan sartzen ez direnak.

Artículo 37. Criterios de sostenibilidad de carácter general.

Los edificios del A.U. «11.Amue» deberán de justificar el cumplimiento de los siguientes aspectos o criterios de carácter general desde el punto de vista de la sostenibilidad:

- Orientación adecuada.
- Instalación de elementos constructivos para el ahorro energético.
- Ventilación adecuada.
- Instalación de espacios destinados al almacenamiento de residuos de manera fraccionada para facilitar su reciclaje.
- Ordenación de espacios destinados al aparcamiento de bicicletas.
- Soluciones técnicas para el ahorro energético en sus instalaciones de alumbrado, calefacción y consumo de agua.
- Utilización de energías renovables.
- Instalación de punto de agua y red de saneamiento de aguas fecales, para la adecuada limpieza del núcleo de comunicación vertical.

CAPÍTULO 2.º CONDICIONES GENERALES
APLICABLES A LAS PARCELAS DE
EQUIPAMIENTO COMUNITARIO

SECCIÓN 1. Condiciones de edificación y uso de las parcelas de equipamiento comunitario EC1 y EC2

Artículo 38. Régimen de edificación.

Las construcciones que se desarrollen en las parcelas de equipamiento, se ajustarán en cuanto a sus condiciones generales de edificación, y volumen a lo especificado en los Planos de Ordenación del presente PEOU, así como a lo establecido en la correspondiente normativa particular para cada una de las parcelas de equipamiento comunitario.

La edificabilidad asignada a estas parcelas en ningún caso computará a efectos de edificabilidad lucrativa, por tratarse de equipamientos de dominio público.

Artículo 39. Régimen de uso.

1. Usos característicos: equipamiento comunitario, en las modalidades establecidas en la normativa particular de cada parcela.

2. Usos admisibles:

— Vivienda, exclusivamente como uso auxiliar de los de equipamiento (como máximo, una vivienda por equipamiento).

— Residencia comunitaria, en los supuestos expresamente previstos en la correspondiente normativa particular de la parcela de equipamiento.

— Terciarios, en las modalidades compatibles y complementarias de los usos característicos.

— Aparcamiento.

— Infraestructuras de servicios urbanos. Se consideran expresamente como tales los usos de infraestructuras de servicios (telecomunicación...).

— Otros usos auxiliares del equipamiento o asimilados al mismo. Se consideran expresamente como tales los usos de infraestructuras de servicios urbanos, tanto sobre como bajo rasante, en la medida en que sean compatibles con el destino preferente de la zona (equipamiento comunitario).

3. Usos prohibidos: los no incluidos en las modalidades anteriores.

LAUGARREN TITULUA

URBANIZAZIOKO ARAUAK

1. KAPITULUA. DISEINU-BALDINTZA OROKORRAK

40. artikulua. *Urbanizazioko baldintzak.*

Plan Berezi honen PO.02 «Antolamendu Orokorra. Lerroka-durak eta sestrak» planoan adierazten dira eremua urbanizatzeko ildo orokorrak, bide publikorako gutxienezko dimentsioak finkatuz.

41. artikulua. *Irisgarritasuna sustatzea.*

Urbanizazioko Proiektuak zein HAPB hau garatzeko tramita litezkeen Xehetasun-azterketek Eusko Jaurlaritzaren Lehendakari-tzaren Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Le-gearn eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailaren 68/2000 Dekretuaren Arau Teknikoetan ezarritakora egokitu beharko dituzte haien zehaztapenak, ahal den neurrian, kontuan hartuta hiri-lurzoruko eremu bat dela.

42. artikulua. *Genero-ikuspegia espazio publikoen disei-nuan.*

Ondorengo alderdiak izango dira kontuan espazio publikoa diseinatzekeo:

– Eremu osoan egoteko espazioak sortzea, pertsonen arteko bizikidetzara, lankidetzara eta elkartasunera bideratutakoak.

– Espazio espezifikoak edo erabilera anitzekoak sortzea, he-rritarrek elkarrekin egiten edo askotariko ekimenak eta jar-duerak garatu ahal ditzaten.

– Urte-sasoi guztietan jendea elkartu eta goza dezan susta-tuko duten espazio publikoak sustatzea, beharrezkoa bada eguz-kitik eta euritik babesteko aukera emango dutenak.

– Jendearen bizitza-zikloko etapa ezberdinetara –adineko pertsonak, gazteak, helduak, adingabeak– egokitutako elkartze-ko eta sozializatzeko lekuak izatea, aproposak eta irisgarriak izango direnak. Adin-tarte ezberdinetako haurrentzako bereizitako eta haiei egokitutako parkeak izatea, bai eta haurtxoak aldatze-ko, haiei arreta emateko eta nolabaiteko pribatutasunez edoski-tuko lekuak ere.

– Parke eta berdegune egokiak diseinatzea: Parkeek sektore-egitura argia izan behar dute, parke barruan dauden bideen hie-rarkia argi adierazita, eta ibilbide nagusia ondo ikusi behar da; bestalde, hesitutako parke itxien ordeztu, parke irekiak sustatu be-har dira.

– Zoladura lisoa eta egoera onean. Espaloiek behar adinako zabalera izan behar dute. Herritar guztientzako irisgarriak, eta espaloien mailan dauden oinezkoentzako pasabideekin.

– Oreka mantendu behar da ibilgailuei bideratutako espa-zioaren eta oinezkoentzako espazioaren artean, oinezkoentzako eremuak sor daitezen sustatuz. Kaleei bizitza itzultzea eta kale-ko bizipenak sustatzea.

– Seinaleztapen egokia: Norbera non dagoen eta nora doan jakitzea, orientatzeko mugarrak eta elementuak eta seinaleztap-en-sistema on bat erabiltzea; baita informazio- eta turismo-bule-goak ere.

– Itzalguneak eta atsedenerako zonak sortzea. Berdegunea eta zuhaitzak ingurunearen baldintzetara egokitzea, eta itzalgu-ne homogeneoak egitea.

– Adineko pertsonentzako edo mugikortasun-arazoak dituz-tenentzako lagunkoia izango den hiri bat diseinatzea. Sozializa-zio-espazioak sortzen lagunduko duten hiri-altzariak diseinatzea.

TÍTULO CUARTO

NORMAS DE URBANIZACIÓN

CAPÍTULO 1.º CONDICIONES GENERALES DE DISEÑO

Artículo 40. *Condiciones de urbanización.*

En el plano PO.02 «Ordenación General. Alineaciones y rantes» del presente Plan Especial se señalan las líneas gene-ales para la urbanización del área fijando las dimensiones mí-nimas para la vialidad pública.

Artículo 41. *Promoción de la accesibilidad.*

El Proyecto de Urbanización así como los posibles Estudios de Detalle que se tramiten como desarrollo del presente PEOU deberán ajustar sus especificaciones a lo establecido en la Ley 20/1997 de 4 de diciembre para la promoción de la Accesibilidad de Presidencia del Gobierno Vasco y las Normas Técnicas del Decreto 68/2000 del Dpto. de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco o normativa que lo susti-tuya, en la medida en que ello sea posible al tratarse de un ám-bito de suelo urbano.

Artículo 42. *Perspectiva de género en el diseño de los es-pacios públicos.*

El diseño del espacio público tendrá en cuenta los siguien-tes aspectos:

– La creación de espacios de estancia a lo largo del ámbito, orientados a la convivencia entre las personas, la cooperación y la solidaridad.

– La creación de espacios específicos o multiusos en los que la ciudadanía pueda realizar acciones asociativas o desa-rrollar iniciativas y actividades diversas.

– Fomento de espacios públicos que fomenten el encuentro y disfrute en todas las épocas del año, protegidas si es neces-a-rio del sol y de la lluvia.

– La disponibilidad de lugares de reunión y socialización de las personas adecuadas a las distintas etapas de su ciclo vital -mayores, jóvenes, adultas, menores, que sean adecuados y estén accesibles. Existencia de parques infantiles diferenciados para tipos de edades y adecuados a ellas y de lugares para cambiar a los bebés, atenderles, dar lactancia con cierta privacidad.

– El diseño de parques y zonas verdes adecuados: Los par-ques tienen que tener una estructura de sectores clara, con in-dicación clara de la jerarquía de caminos dentro del parque y de la visibilidad de la ruta principal y fomentando parques abiertos frente a los cerrados con rejas.

– Pavimento liso y en buen estado Aceras suficientemente anchas. Accesible para todas sus habitantes y con pasos para peatones al nivel de las aceras.

– Equilibrio entre el espacio destinado a los coches y el es-pacio destinado a los peatones, fomentando la creación de zonas peatonales. Restituir la vida a las calles y fomentar la vivencia de la calle.

– Señalización adecuada: Saber dónde se está y a dónde se va propiciando hitos y elementos orientativos, un buen sistema de señalización; oficinas de información y turismo.

– Creación de zonas de sombra y descanso. Adaptación de la zona verde y arbolado a las condiciones del entorno y zonas de sombra homogéneas.

– Diseño de ciudad amigable para las personas mayores o con problemas de movilidad Diseño de mobiliario urbano que contribuya a crear espacios de sociabilización.

— Hiriko espazioak eta altzariak proiektatzerakoan, kontuan izan behar dira alderdi meteorologikoak eta eguzkiaren orientazioa urte-saso ezberdinetan.

— Adineko pertsonen eta zainketa-kargak dituztenen ergonomia eta ingurunearen ezaugarrietara egokitzen diren bankuak jartzea.

— Igarobideek eta pasaguneek behar adinako argiztapena izan behar dute gauez, zuhaitzekin eta bestelako landareekin bateragarriak diren argiekin.

— Zubiak, eskailerak, tunelak edo igogailuak bezalako ibilguneak, saihestezinak baldin badira, zainduta egon behar dira eta ikuseremu zabala izan behar dute.

— Espazioaren ikuspena.

— Espazio publikoen bizigarritasuna bermatzea, herritarrek espazio horiek erabil eta goza ditzaten sustatuz.

— Ondo sektorizatutako eta seinaleztatutako parkeak eta berdeguneak diseinatzea, zokorik gabeak, ondo ekipatutakoak, ohiko garbiketa- eta mantenu-lanak ahalbideratuko dituzten diseinuekin eta argiztapen egokiarekin.

— Berdintasunean oinarritutako aisia- eta aisialdi-espazioak diseinatzea, hierarkikoak izango ez direnak edo estereotipoen arabera gizonezkoenak diren jarduerak sortuko ez dituztenak.

43. artikulua. *Espazio publikoak klima-aldaketa kontuan hartuta diseinatzea.*

Klima-aldaketa da XXI. mendeko ingurumen-erronka nagusia. Helburu nagusia da berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea, planetaren berotze globalaren eragile nagusiak baitira, eta ingurumenean, ekonomian eta gizartearen eragiten dituzten inpaktuetara egoki gaitezen ahalbidera dezaketenez estrategiak ezartzea.

Klima-aldaketaren ondoriozko inpaktuetara egokitu gaitezen, funtsezkoa da espazio publikoak ondo diseinatzea. Horregatik, ondorengo gomendioak kontuan hartu beharko dira espazio publikoak diseinatzerakoan:

— Zolatutako azalera handiak saihestu behar dira, eta berotasuna horrenbeste atxikitzen ez duten zoladurak aukeratu, hala nola zoladura berdeak (saretak) edo zoladura hotz eguzki-islataileak, eguzkiaren eraginpean zoladura konbentzionalak baino freskoago mantentzen baitira.

— Itzalpeko espazioak sortzea eta iturriak jartzea.

— Etorkizuneko klima-agertokietara ondoen egokituko diren landareak eta zuhaitzak aukeratzea:

Berdeguneetan zuhaitz eta landare espezie alternatiboak erabiltzeko aukera kontuan hartzea, lehorte ondoen jasaten duten barietateak aukeratzuz.

Mantenu txikiko eta ureztatzeko ia urik behar ez duten lora-tegi «jasangarriko» irizpideak ezartzea.

— Ibaier ibaiaren ertza birnaturalizatzea, duen korridore ekologiko, biodibertsitate-bektore eta herritarrek naturarekin konektatzeko eginkizunak bultzatzeko.

Ibaiaren ondoko zona eraldatzea, eta espazio berde eta aisia-gune bihurtzea; espazio horiek hiri-ingurunean natura-espazioez gozatzeko aukera eman dezaten, ibaira eta bainu-eremuetara iristeko guneak sortuz.

— Drainatze Jasangarriko Hiri Sistemak ezartze, hainbat modalitatetan: Landare-estalkiak, Uharkak, Infiltrazio-txorkoak, Zoladura iragazkorrak, Infiltrazioko putzuak, zangak eta andelak, Uholde-parterreak, Draina iragazleak, Landare-arekak, Zerrenda iragazleak, Hondar-iragazkiak, Atzemate- eta/edo infiltratze-baltsak, Urmaelak. Euri-ura atzemateko, atxikitzeko, iragazteko eta infiltratzeko eginkizunak garatzen dituzte Drainatze Jasangarriko Hiri-sistemen teknika ezberdinek. Sistema horiek ezarrita, euri asko egiten duen aldietan isurketak kudeatu ahal izango dira, urbanizatutako inguruneetan isurketa-uren geruza gehiegi goratzea saihestuz.

Urbanizazio-proiektuan zehaztu beharko dira ingeniariartza naturalistikoko soluzio espezifikoak.

— Los espacios y el mobiliario urbano se tienen que proyectar teniendo en cuenta las inclemencias meteorológicas y la orientación del sol en las diferentes épocas del año.

— Disposición de bancos adecuada a la ergonomía de personas mayores, con cargas de cuidado y a las características del entorno.

— Pasajes y las áreas de paso con la suficiente iluminación nocturna, con luces compatibles con los árboles y otra vegetación.

— Desplazamientos como puentes, escaleras, túneles o ascensores. Si son inevitables, deben tener vigilancia y un campo de visión amplio.

— Visibilidad del espacio.

— Garantizar la habitabilidad de los espacios públicos, fomentando su uso y disfrute por parte de los ciudadanos.

— Diseño de parques y zonas verdes bien sectorizados, señalizados y sin recovecos, con diseños que permitan la limpieza y mantenimiento habitual, una correcta iluminación, y que estén bien equipados.

— Diseño de espacios de ocio y esparcimiento igualitarios, no jerárquicos o que generen actividades estereotipadamente masculinas.

Artículo 43. *Diseño de los espacios públicos teniendo en cuenta el cambio climático.*

El cambio climático es el gran reto ambiental del siglo XXI. El objetivo clave es frenar las emisiones de gases de efecto invernadero, principales causantes del calentamiento global del planeta y establecer estrategias que permitan adaptarnos a los impactos ambientales, económicos y sociales que provocan.

Un buen diseño de los espacios públicos es fundamental para adaptarnos a los impactos derivados del cambio climático. Por ese motivo, el diseño de los espacios públicos tendrá en cuenta las siguientes recomendaciones:

— Evitar las grandes superficies pavimentadas y elegir pavimentos que no retengan tanto el calor como los pavimentos verdes (celosías) o los pavimentos fríos reflectantes solares que permanecen más frescos al sol que los pavimentos convencionales.

— Crear espacios en sombra e instalar fuentes.

— Elegir la vegetación y el arbolado que mejor se adapten a los futuros escenarios climáticos:

Considerar el uso de especies alternativas para árboles y otro tipo de vegetación en zonas verdes, seleccionando aquellas variedades con mayor tolerancia a la sequía.

Implementar criterios de jardinería «sostenible» de bajo mantenimiento y consumo de agua de riego prácticamente nulo.

— Renaturalización de la margen del río Ibaier para favorecer su papel como corredor ecológico, vector de biodiversidad y punto de conexión de los ciudadanos con la naturaleza.

Transformación de la zona aledaña al río en espacios verdes y de ocio que ofrezcan la oportunidad de disfrutar de espacios naturales en el entorno urbano, creando puntos de acceso al río y zonas de baño.

— Implementación de Sistemas Urbanos de Drenaje Sostenible (SUD) en sus diversas modalidades: Cubiertas vegetadas, Aljibes, Alcorques de infiltración, Pavimentos permeables, Pozos, zanjas y depósitos de infiltración, Parterres inundables, Drenos filtrantes, Cunetas vegetadas, Franjas filtrantes, Filtros de arena, Balsas de detención y/o infiltración, Estanques. Las diversas técnicas de SUDs desarrollan funciones de detención, retención, filtración e infiltración de agua pluvial. La implantación de los SUDs permitirá gestionar la escorrentía en periodos de lluvias intensas evitando la sobre elevación de la lámina de agua de escorrentía en los entornos urbanizados.

Se deberán detallar en el proyecto de urbanización las soluciones específicas de ingeniería naturalística.

2. KAPITULUA. ERAIKITZEKO BALDINTZAK ETA EZAUGARRI XEHATUAK

44. artikulua. Sareen ezaugarriak.

PO.04 «Sareen Eskemak» serieko planoetan marraztutako sareak eskemak besterik ez dira eta, beraz, xehetasunez aztertu beharko dira haien ezaugarriak dagokion Urbanizazio Proiektuan.

45. artikulua. Saneamendu-sarearen ezaugarriak.

Urbanizazio-proiektuak saneamendu-azpiegiturak behar bezala lotzeko beharrezkoak diren soluzioak jaso beharko ditu.

1. Ur beltzen sarea:

– Saneamendua modu bereizian proiektatuko da obraren eremu osoan.

– Gaur egungo sarearekin konektatzeko aurreikusten diren gunean adierazi beharko dira.

– Hornikuntza-saretik ez datozen urak –drainatzeetatik datozenak, esaterako– ezingo dira ur beltzen saneamendu-sarera konektatu.

– Gaur egungo sare unitarioak sare bereizi bilakatzea ekariko duten jarduketak bultzatu beharko dira.

– Indarrean dagoen Eraikuntzaren Kode Teknikoaz gain, Gipuzkoako Ur Partzuergoaren Kolektorerako isurketak Arautzen dituen Erregelamenduan zehazten dena bete beharko da.

2. Euri-uren sarea.

– Indarrean dagoen araudian ezartzen denera egokitu beharko da, sarearen ezaugarri orokorre, dimentsionamenduari eta isurketen arauketari dagokionez.

– Azpeitiko Udalak onetsi beharko du euri-uren sarearen diseinua, hura baita sarea mantentzearen arduraduna.

46. artikulua. Ur-hornikuntzako sarearen ezaugarriak.

Urbanizazio-proiektuak urez hornitzeko dagoen 200 mm-ko diametroko galdaketa hariorreko hodiarekin behar bezala konektatzeko beharrezkoak diren soluzioak jaso beharko ditu.

Ondoren adierazten diren aurreikuspenak betetzeko diseinututa egon beharko da ura hornitzeko sarea, betiere indarrean dagoen dagokion araudia beteta:

– Edateko ura hornitzeko.

– Suteen aurrean babesteko (ur-harguneak).

1. Edateko ura hornitzeko:

– Sare berriak saretuak izan beharko dira, ahal den heinean.

– Lehendik dagoen sarearekiko konexio-guneak adierazi eta xehatu beharko dira.

– Obraren fase ezberdinetan hornikuntza bermatzeko beharrezkoak izango diren behin-behineko desbideraketak kontuan hartu beharko dira.

– Kontsumo guztiak neurtu beharko dira.

2. Suteen aurrean babesteko:

– Ureztatze-aho guztiek izango dute kontagailua, eta Azpeitiko Udalak onetsi beharko du aho kopurua eta haien kokalekua.

47. artikulua. Energia elektriko, telefonia, gas eta argiteria publikoko sareen ezaugarriak.

Elektrizitateko eta telefoniako instalazio eta linea guztiek bete beharko dituzten indarrean dauden erregelamendu ofizialak eta konpainia emakidadunen arauak.

CAPÍTULO 2.º CONDICIONES CONSTRUCTIVAS Y CARACTERÍSTICAS DE DETALLE

Artículo 44. Características de las redes.

Las redes grafiadas en los planos de la serie PO.04 «Esquemas de redes» son únicamente esquemas debiendo estudiarse detalladamente sus características en el correspondiente Proyecto de Urbanización.

Artículo 45. Características de la red de saneamiento.

El proyecto de urbanización deberá contemplar las acciones necesarias para la correcta conexión de las infraestructuras de saneamiento.

1. Red de fecales:

– El saneamiento se proyectará de manera separativa en todo el ámbito de obra.

– Se deberán indicar los puntos de conexión previstos con la actual red.

– Aguas no procedentes de la red de abastecimiento como, por ejemplo, drenajes... no podrán ser conectados a la red de saneamiento fecal.

– Se deberán favorecer actuaciones que conlleven la transformación de las actuales redes unitarias en redes separativas.

– Se deberá cumplir además del CTE en vigor, lo especificado en el Reglamento Regulador del vertido a Colector del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

2. Red de pluviales.

– Se deberá adaptar en sus características generales, dimensionamiento y regulación de los vertidos, a lo establecido a la normativa vigente.

– El diseño de la red de pluviales deberá ser aprobado por el Ayuntamiento de Azpeitia, por ser el responsable de su mantenimiento.

Artículo 46. Características de la red de abastecimiento de agua.

El proyecto de urbanización deberá contemplar las acciones necesarias para la correcta conexión a la conducción de fundición Dúctil de 200 mm de diámetro existente para el abastecimiento de agua.

La red de abastecimiento de agua estará diseñada, cumpliendo en cada caso la normativa vigente correspondiente, para cumplir las previsiones de:

– Suministro de agua potable.

– Protección contra incendios (hidrantes).

1. Suministro de agua potable:

– Las nuevas redes deberán ser en la medida de lo posible malladas.

– Se deben indicar y detallar los puntos de conexión con la red existente.

– Se deben contemplar los desvíos provisionales necesarios para garantizar el abastecimiento durante las diferentes fases de obra.

– Todos los consumos deberán ser medidos.

2. Protección contra incendios:

– Todas las bocas de riego dispondrán de contador y tanto su número como su ubicación deberán ser aprobados por el Ayuntamiento de Azpeitia.

Artículo 47. Características de la red de energía eléctrica, telefonía y alumbrado público y gas.

Todos los tendidos e instalaciones eléctricas y telefónicas cumplirán con los reglamentos oficiales vigentes, así como con las normas de las compañías concesionarias.

Argiteria publikoaren diseinu, dimentsionamendu, argiztapen-maila eta uniformetasuneko baldintzei dagokienez, indarrean dagoen araudian zehazten dena bete beharko da.

Indarrean dagoen araudiari jarraikiz diseinatu beharko da gas-sarea, eremutik hurbil dagoen gas-saretik elikatuz.

48. artikulua. *Zolaketa, eta ibilgailuentzako bideak, oinezkoentzako pasealekuak eta egoteko guneak zolatzea.*

Urbanizazio proiektuak definituko ditu bide publikoen ezau-garriak.

Bideak, aparkalekuak, oinezkoentzako pasealekuak eta egoteko guneak indarrean dauden ordenantzei eta araudiari jarraikiz egikarrituko dira, zolatzeari dagokionez.

49. artikulua. *Lur-mugimenduak.*

Urbanizazio proiektuak definituko ditu urbanizazio publikoaren eta mugakide dituen lursail pribatuen behin betiko sestrak.

HAPB honetan «PO.04.5 Lur-mugimenduak» planoak jasotzen da, proposatutako antolamendua gauzatzeko aurreikusten diren lur-mugimenduak adierazten dituen, gutxi gorabehera.

50. artikulua. *Zuhaitzak eta lorategiak.*

Antolamenduan jasotzen diren espazio libre publikoak kalitate oneko zelaia ereinda eta landaketak eginda biribildu, edertu eta egokituko dira. Zuhaitzak txorkoetan jarriko dira, HAPB honetako antolamenduko planoetan jasotzen diren irizpideei jarraikiz.

Urbanizazio proiektuan justifikatu egin beharko da hirigintzako estandarrei buruzko 123/2012 Dekretuaren 6.2.c) artikulua ezartzen duen landarediari dagokion estandarra betetzen dela; aurrez gauzatutakoarekiko gehitzen den 100 metro koardo eraiki bakoitzeko zuhaitz bat landatu edo iraunarazi beharko dela ezartzen du artikulua horrek. Beraz, horri jarraikiz, 595 zuhaitz izango lirateke.

BOSGARREN TITULUA

BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK

51. artikulua. *Kultura ondarearen babesa.*

Kultura ondareari dagokionez, katalogatutako ondorengo elementuak daude eremuaren barruan:

1. Eraikitako ondarea:

— Amueko zubia, XVII. mendekoa, 1964ko urtarrilaren 17ko Agindu bidez probintziarako interes historiko-artistikoa duen monumentu izendatutakoa eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zentroak (Ondarea) Kalifikatutakoa. Babes-maila berezia.

Santa Klara komentua, Erdi Aro ondorengo eraikina, XV-XVI. mendeetakoa, EAEko Monumentu izendatzeko proposatutako ondasun higiezin. Babes-maila ertaina.

2. Ondare arkeologikoa:

— San Frantzisko komentua, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zentroak (Ondarea) Balizko Arkeologia Gune gisa (A eremua) hormez barruko esparrua jasota duena, gaur egungo Santa Klara komentua dagoen eremuan kokatzen dena.

— «Enparan Errota» ustezko zona arkeologikoaren zati bat (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 195. alea, 1997/10/13). Elementu horren interes arkeologikoa haren babesarako mugatutako eremuaren zorupean oinarritzen da, lurperatutako egituretan, kanalean eta presan.

Ustezko zona arkeologiko horietarako, hirigintzako lizentzia eman aurretik haiengan eragina izan dezakeen edozein obra-proiektu egin baino lehen eta hirigintzako lizentzia eman aurretik, azterketa bat egin beharko da, eta azterketa horretan oinarrituta,

En cuanto a las condiciones de diseño, dimensionado, niveles de iluminación y uniformidad del alumbrado público se deberá de cumplimentar lo especificado en la normativa vigente.

La red de gas se diseñará siguiendo la normativa vigente, alimentándola desde la red de gas existente en las cercanías del área.

Artículo 48. *Pavimentación, afirmado de viales de circulación rodada, paseos peatonales y áreas de estancias.*

El proyecto de urbanización definirá las características de la vialidad pública.

Los viales, aparcamientos, paseos peatonales y áreas de estancia se ejecutarán de acuerdo, en cuanto a afirmado y pavimentación, con las ordenanzas y normativa vigente.

Artículo 49. *Movimiento de tierras.*

El proyecto de urbanización definirá las rasantes definitivas de la urbanización pública y de las parcelas privadas colindantes a la misma.

El presente PEOU incluye el plano «PO.04.5 Movimiento de tierras» que refleja de manera orientativa el movimiento de tierras previsto para llevar a cabo la ordenación propuesta.

Artículo 50. *Arbolado y jardinería.*

Los espacios libres públicos resultantes recogidos en la ordenación, se perfilarán, refinarán y acondicionarán mediante siembra de césped de buena calidad y plantaciones. Se integrarán alcorques con arbolado siguiendo los criterios recogidos en los planos de ordenación del presente PEOU.

El proyecto de urbanización justificará el cumplimiento del estándar de vegetación que establece el artículo 6.2.c) del Decreto 123/2012 de estándares urbanísticos, que establece que habrá de preverse la plantación o conservación de un árbol por cada incremento de 100 m² de construcción respecto a la previamente materializada, lo que da lugar a un mínimo de 595 árboles.

TÍTULO QUINTO

CONDICIONANTES SUPERPUESTOS

Artículo 51. *Protección del patrimonio cultural.*

Respecto al patrimonio cultural, el ámbito incluye los siguientes elementos catalogados:

1. Patrimonio edificado:

— Puente de Amue, puente de siglo XVII declarado monumento provincial de interés histórico-artístico por Orden de 17 de enero de 1964 (*Boletín Oficial del Estado* 29/02/64) y Calificado por el Centro de Patrimonio Cultural (Ondarea) del Gobierno Vasco. Nivel de protección especial.

Convento de Santa Clara, edificio postmedieval del siglo XV-XVI, bien inmueble propuesto para ser declarado Monumento de la CAPV con el grado de protección Media.

2. Patrimonio arqueológico:

— Convento de San Francisco incluido como Zona de Presunción Arqueológica (zona A) Área Intramuros por el Centro de Patrimonio Cultural (Ondarea) del Gobierno Vasco, situado en la zona donde se encuentra el actual Convento de Santa Clara.

— Parte de la zona de presunción arqueológica «Molino Empanan» (*Boletín Oficial del País Vasco* n.º 195, 13/10/1997). El interés arqueológico de este elemento se centra en el subsuelo del área delimitada para su protección, en las estructuras soterradas, el canal y la presa.

Para estas zonas con presunción arqueológica, con carácter previo al otorgamiento de la licencia urbanística deberá llevarse a cabo un estudio, previo a cualquier proyecto de obras que puedan afectarlas, en base al cual el Servicio de Patrimonio His-

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ondare Historiko-Artistikoaren Zerbitzuak erabakiko du proiektu arkeologikoa egin behar den edo ez obrak egikaritu baino lehen.

3. Tokiko ondare arkitektonikoa:

